

Ordizian, 2015eko urriaren 29an UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan.

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EH Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EH Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EH Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako EH Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EH Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Antxon Sanz Lecuona	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak.

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK: Guztiak izan dira

IDAZKARIA:

Iker Rocandio Etxeberria

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi



AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- Alkatetzako dekretuen berri ematea.
2. Zinegotzi berriaren kargu-hartzea.
- 3.- Ordiziako EH-Bilduk aurkeztutako proposamena "Buztuntzako Pasealekuaren alde" izenburua duena.
- 4.- Ordiziako EH-Bilduk aurkeztutako proposamena "Bi auzo-konpostagune jartzeko" izenburua duena.
- 5.- Ordiziako EH-Bilduk aurkeztutako proposamena "Udal antolamentuaren inguruan proposamena eginez" izenburua duena.
- 6.- Ordiziako EH-Bilduk aurkeztutako proposamena "Aurrekontu parte hartzaileen aldekoa" izenburu duena.
- 7.- Sasieta udal ordezkariak izendatzea.
- 8.-. 2016rako Tasa eta Zergak.
- 9.- Auto-taxien herri barruko 2016. urteko tarifak onartzea.

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:04etan

AMAIERA: 22:20etan



1.- Alkatetzako dekretuen berri ematea.

Plenoa jakinaren gainean geratu da.



2.- Zinegotzi berriaren kargu-hartzea.

Antxon Sanz Lecuonak uko egin zuenez, Ordizia Orain taldeko zinegotzi gisa kargua hartu du M^a Jesus Soto de los Santosek, legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen baititu. Kargu eta funtzio publikoetarako ezartzen duen formula erabilita zin egin du.



3.- Ordiziako EH-Bilduk aurkeztutako proposamena "Buztuntzako Pasealekuaren alde" izenburua duena.

Proposamena

BUZTUNTZAKO PASALEKUAREN ALDEKO MOZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen iraunkorraren aldeko ingurumen estrategian (2002-2020), 5.000 biztanle baino gehiagoko udalek, 2006 urterako beraien Tokiko Agenda 21 egitaraua diseinatu behar zuten. Ordizia ei zen salbuespen bat izan eta lan horri ekin zion. Dagoeneko, 2010-2012ko A21eko Ekintza Plana indarrean daukagu.

Ordiziako A21 etako Ekintza Plana diseinatzeko hainbat foro burutu ziren eta bidegorriaren gaia lantzeko momentuan, argi ikusi zen Urdaneta Eskolak, herriko beste ikastetxeekin batera, zuen eskubide eta beharra bidegorri bat izateko. Bidegorri hori errekaaren ondoan diseinatu izan zen, udal teknikarien bitartez. Bertan espazioa irabaztea aurreikusten zen, pretil zabala baranda batekin ordezkatzuz.

Beranduago, 2011-2015 agintaldian, Ordiziako 1. Mugikortasun Iraunkorreko Plana diseinatu zen eta bertan ere jasotzen zen bidegorria jartzeko Lekurik onena errekaaren ondokoa zela. Gain era, Planak



bidegorriak zeukan eraginkortasuna biderkatzen zuen, lotura segurua eta zuzena tor zitekeelako Mallutz Industrialdearekin.

Horrez gain, 2014an, Ordiziako Udaiak burutu zuen aurrekontu parte-hartzaileen bitartez, Buztuntzako auzoan agertu zen behar bat hori bera izan zen, izan ere, zorua oso egoera kaxkarrean baitzegoen eta oraindik hala dago.

Proiektua, berriz ere, udal teknikariek birdiseinatu zuten, hainbat hobekuntza proposatuz eta bizilagunen hainbat ekarpen kontuan harturik. Proiektu hori aurrera eramateko, 2015eko aurrekontuetan partida bat jaso zen, Udal Batzak gehiengo osoz onartu zuelarik. Horrez gain, Udal gobernua GFArek aldetik proiektua garatzeko diru-laguntza jaso zuen.

Esandako guztiengatik, Ordiziako EH Bildu taldeak hurrengo eskaera luzatzen dio Udai Gobernuari:

ESKAERA

Ordiziako Udal Batzak Udal Gobernuari Buztuntzako paseaiekurako aurreikusitako proiektua ahalik eta azkarren burutu dezala, herritarren zerbitzurako izango dena eta diru-laguntza galdu gabe.

Eztabaida

Adur Ezenarro

(Proposamena azaldu du).

Alkatea

Puntua erretiratzea eskatzen dizuet, bidegorria egiteko dauden bi arazoak konpontzeko ahaleginetan ari gara eta.

(Igor Egurenen galderari erantzunez, argitu du Udalak proiektua egitea nahi duela, baina agian moldaketa batzuk behar dituela).

Igor Eguren

Erretiratzen dugu puntua, baina aurrera egiteko konpromiso bat nahi dugu.

Proposamena erretiratua izan da.



4.- Ordiziako EH-Bilduk aurkeztutako proposamena "bi auzo-konpostagune jartzeko" izenburua duena.

Proposamena

Aurreko agintaldian Udal Gobernuaren aldetik esfortzu handi bat egin zen larategi edo berdeguneren bat ez zuten herritarrei beraien hondakin organikoak konpostatzeko aukera emateko. 2013ko udaberrian, eta proba pilotu moduan, Arabako Parkean konpostatzeko gune bat martxan jarri zen. Arrakasta handia izan zen, oso azkar konpostagailu bakoitzean (konpostagune bakoitzean lau konpostagailu jartzen dira, txandaka erabiltzeko, talde bakoitzak bina erabiliz) seina familia apuntatu baitziren eta dagoeneko itxaron zerrenda dago.

Esperientzia hori ikusita, Ordiziako auzo guztietan eskaintza zabaldu nahi izan zen, eta horrela Buztuntzan, Filipinak kalean, Malkaskon... herritarrek aukera dute hondakinak konpostatzeko. 2014aren bukaeran hiru gehiago jarri nahi izan ziren, eta horretarako GFari diru-laguntza bat eskatu eta jaso zuen Udalak. Zoritxarrez, udal langileen lan zama deia-eta, soilik bat eraiki zen, Barrena parkekoa eta beste biak, Majori eta Altamirakoa, jarri gabe geratu ziren.

GFaren aurrean jasotako diru-laguntza justifikatu behar izan zuen Udaiak eta dirua ez buieitzeko 2015an eraikitzeko konpromiso irmoa hartu zuen. GFAk ontzat eman zuen luzapena.

2015eko bukaeran egonda eta jakinda bi konpostagune horiek eraiki gabe daudela, arazoari lehen bai lehen eutsi beharko diogulakoan gaude.

Esandako guztiengatik, Ordiziako EH Bildu taldeak hurrengo eskaera luzatzen dio Udal Gobernuari:

ESKAERA

Ordiziako Udal Batzak Udal Gobernuari eskatzen dio aurreikusita zeuden bi konpostagailuak lehen bai lehen martxan jar ditzala, urtearen bukaerarako eraikinak egon daitezen.

Eztabaida

Igor Eiguren

(Proposamena azaldu du).

Alkatea

Konpostatzearen alde gaude. Baina aipatzen dituzuen diru-laguntzen berririk ez dago espedienteetan. Bestalde, auzokideen iritzia jakin nahi dugu.



Angelica Moreno

Emandakoaren zati bat zuek aipatzen duzuen diru-laguntzan zuritu da, baina ez dago partidarik aurrekontuan Foru Aldundiarekin konpromisoa hartu zenuten arren. Gainera, konpost-ontzien funtzionamenduari buruzko kexak daude. Beharbada enpresaren bat kontratatu beharko da behar horiei aurre egiteko.

Herritar bat

Aurreko legealdian zinegotzi ginenok prest geunden deskargo bat egiteko. Ez gaituzue deitu. Horrela, sortu diren zenbait arazo konponduak leudeke. Konpostagailuek arrakasta izan dute.

Alkatea

Sasietako Teknikoekin ari gara lana egiten. Konpostagailuak urte hasieran eginda beharko lukete egon, eta ez zeuden.

(Eztabaida sortu da, konpostagailuak jarri gabe egotearen arrazoiei buruz eta auzoko bizilagunen iritzia buruz. Tartean, herritar batzuek konpostatzearen aldeko bere iritzia eman dute).

Bozketa

Aldekoak: 7 (Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Abstentzioak: 0.

Aurkakoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak 1)

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



5.- Ordiziako EH-Bilduk aurkeztutako proposamena "Udal antolamenduaren inguruan proposamena eginez" izenburua duena.

Proposamena

Udalaren antolamenduari buruz hasi baino lehen, komenigarria litzateke, udal boterearen banaketa nola burutzen den aztertzea. Izan ere, udalek duten erabakitze eskumena bitan banatzen baita. Alde batetik, gai garrantzitsuenen eskumena udal-batza edo plenoari dagokio, eta bertan erabakiak demokratikoki hartzen dira, hau da, hautetsiak izan diren zinegotzi guztien bozketaren bitartez. Alabara, gai horiek oso garrantzitsuak badira ere, horietatik kanpo esparru zabala geraldzen da.

Udalaren egunereko jardunean bada, udal-batzaren eskumenetik at geratzen diren gai horiek eragiten dute benetan, eta kasu honetan, erabakitzeko eskumen osoa alkatearena da. Hau da, gai hauetan erabakiak alkatearenak dira. Gauzak honela, hamaika gobernatzeko bide zabaltzen dira, guztiak kasuan kasuko alkateak erabakitzen duenaren baldintzapean, gakoa legeak eskaintzen dion boterearen banaketan dagoelako. Legeak ez baitu zehazten hirigintza zinegotzi bat, edo ogasunekoa, edo kulturakoa egon behar duenik, hori alkate bakoitzak hartzen duen erabakia da. Alkateak aukeratzen duelako legeak eskaintzen dion boterea nola banatu edo delegatu, nori, zenbateraino, eta baita noiz arte ere, edozein unetan dekretu baten bitartez delegazio hori desegin baitezake.

Honenbestez, alkatearen eskumen maila horri erreparatuta, Udal Gobernuaren antolatzeko bi eredu daudela esan genezake. Aide batetik, sistema partekatuen mekanismoak erabiltzea, eskumenik garrantzitsuenak Tokiko Gobernu Batzordeari delegatuz, eta beste batzuk gaika zinegotzi ezberdinen artean banatuz, eskumenen banaketa lortzea, alegia. Eta bestetik, legeak eskaintzen dituen eskumenak alkatearen gain uztea, arlokako zinegotziak egonda ere, erabakitzeko eskumenik delegatu gabe.

EH Bilduk sustatzen duen eredia lehenengoa da, boterearen banaketan eskema horizontalak defendatzen ditugulako. Horregatik, bide horretatik Udalak egun dituen organo erabakiorretatik haratago, hau da, Plenoa eta alkatea, Gobernu Batzordeari eta batzordeei (gaika eratuko ziren batzorde hauek ahalbidetzeko formulak bilatuz) eskumenak delegatu, eta alderdi guztien ordezkari izango duen gune erabakiorra izatea proposatzen dugu.

Eskema honen arabera, Ordiziako EH Bilduk honako PROPOSAMENA helarazi nahi dio udalbatzari:

- 1.- Plenoa. Hilean behin egitea, herritarrei irekia.
- 2.- Gobernu batzarra. Alderdi guztion ordezkariarekin osatutako organoa izatea, eta alkatearen eskumen garrantzitsuenak delegazioz jasota izatea.
- 3.- Gai arrunten batzordea. Kontu emateko erabiltzen den organoa izaki, desagertzea proposatzen dugu. Kontu emateak batzordeak indartuz egingo litzatekeelako, eta Gobernu Batzordean tratatuko diren gaien bitartez.
- 4.- Teknikarien bilera. Hilean behin egingo iitzaiteke udal teknikariek beren esparruko gaien deskargua eta koordinazioa egiteko. Batzorde hau desagertarazi daiteke, baldin eta batzordeek erabaki ahalmena izango badute.
- 5.- Plenorako gaien batzordea: Plenoko gaiak diktaminatzeko organoa, dagokion ordezkari politikoekin osatu dago. Batzorde hau desagertarazi daiteke, baldin eta batzordeek erabaki ahalmena izango badute. Kasu horretan batzordeak lirateke plenora gaiak diktaminatuko lituzketenak.
- 6.- Batzordeak. Udal ordezkariak, teknikariak eta herritarrek osatuta, egon behar dute. Batzordeak irekiak izango dira, informatzaileak eta erabaki ahalmena delegatua izango dute. Batzordeen ahalduzko proposatzen dugu. Guztiok adostasunez erabakitako batzordeak aztertze konpromisoa hartzen dugu.



Honako batzordeen osaketa edo indartzea proposatzen dugu:

ARLOA	BATZORDEA
Hirigintza, obrak eta ingurumena	Hirigintzako aholku batzordea, Plan Orokorren batzordea, Ingurumen batzordea eta A21
Berdintasuna	Berdintasuneko kontseilu erabakiorra (sortze prozesuan diharduena)
Ongizatea	Ongizateko aholku batzordea
Kirola	Kiroleko aholku batzordea
Kultura	Kulturako aholku batzordea. Bi azpibatzerde: Azpiegiturak Koordinazioa Herri Antzokia
Euskara	Euskarako aholku batzordea
Ogasuna	Kontuen batzordea.
Gazteria	Aholku batzordea.
Sustapena, garapena eta merkataritza	Merkataritza ekonomiaren suspertzea ahalbidetuko duena. Azpibatzerde: Azoka batzordea.

Eztabaida

Igor Eguren

(Proposamena azaldu du).

Gu gara udal antolamenduari buruzko gobernu taldeak egin duen antolamenduari buruzko planteamendua ez duen udal talde bakarra, sarritan eskatu badugu ere.

Alkatea

Gai nagusiak herritarrekin landu nahi ditugu, parte-hartzea bermatuz.

(Proiektzio baten bitartez, azaldu du zein den gobernu taldearen proposamena).

Igor Eguren

Hau da E.H. Bilduk oraindik ez duen proposamena. Herritarrekin batera enteratu gara.

Aholku Batzordeak jarraituko dute aholku batzorde izaten edo eskudantzak izango dituzte?

Alkatea

Irekiak gaude aztertzeko. Teknikariek ere parte hartu behar dute.



Mila Sukia

Ordezkaritza-sistema berraztertu egin behar da herritarrak ahaldunduz. Batzordeek erabakitzeko ahalmena izan behar dute.

Igor Eguren

Batzordeen erabakiak lotesleak izan behar dute. Horretarako Erregelamendua aldatu beharko dugu.

Iñaki Dubreuil.

Gobernu taldeko proposamenarekin herritarrek badituzte esku hartzeko behar beste bide.

Alkatea

Proposamena adostea nahi dugu, udal taldeekin, teknikariek, langileen ordezkariekin... Txosten bat osatu beharko da.

(Igor Egureni eskatu dio proposamena mahai gainean uztea eta harek ezetz erantzun du).

Bozketa

Aldekoak: 7 (Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Abstentzioak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



6.- Ordiziako EH-Bilduk aurkeztutako proposamena "Aurrekontu parte hartzaileen aldekoa" izenburu duena.

Proposamena

Aurrekontuak Udaleko tresnarik garrantzitsuenak dira, eta behar bezelako lanketa eskatzen dute. Honez gain, Udaleko teknikari eta zinegotzietz haratago, herritarren parte-hartzea sustatzeko tresna oso garrantzitsua dira. Udaletik partaidetza-kultura zabaltzen jarraitu behar dugu, Ordiziak Herri aktibo eta dinamikoa izaten jarrai dezan, Horretarako herritarrei aurrekontuetan ere parte hartzeko aukera eskaini behar zaie.



Horretari aritu da Udaia orain arte, eta lan horri jarraipena eman behar diogu. Herritarren hitza entzun, kontuan hartu eta ordiziarren nahia aurrekontuan isiatzeko ahalegina egitea dagokio Udalari, Udaiak herritarrak ahalbidetu behar ditu eta hiru lerro hauek aintzat hartu: Batzordeak: Udaleko sail ezberdinetako batzordeak.

Berariazko prozesuak: gal ezberdinen inguruan egiten diren prozesuak (hondakinak, aurrekontuak, Oiangu...).

Auzoz auzoko antofamendua: auzoetako egora eta dituzten beharrak ezagutzeko auzo elkarteak sustatu.

Honez gain, Udaiaren dinamika errazagoa izan dadin, aurrekontuak bere garaian onartzeak ere berebiziko garrantzia du. Azken bi urteetan abenduan onartu dira, eta honek aurrekontuaren jarraipena egiteko erraztasuna ahaibidetzen die udai teknikari zein zinegotzietan,

ESKAERA

Ordiziako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio aurrekontu parte-hartzaileen prozesua abian jar dezala (aurreko urteko "Ordizia Zabalik" prozesua oinarri hartuta) eta urte amaierarako aurrekontua onartu dezaia.

Eztabaida

Izaro Intsausti

(Proposamena azaldu du eta alkateari galdetu udal gobernuak egin nahi duen parte-hartze prozesuari buruz).

Alkatea

Ari gara bilerak egiten auzoetan eta Aholku Batzordeekin. Jakinaren gainean izango zaituztegu.

Izaro Intsausti

Ordizia Zabalik prozesua oso emankorra izan zen. Hango zenbait proposamen jaso ziren aurrekontuetan, baina hainbat proiektu eta obra atzeratzen ari dira (herri antzokia, aparkalekuen proiektua, baratza ekologikoak...).

Aurrekontuak prestatzeko egutegia garaiz jakinaraztea eskertuko dizuet, parte hartu ahal izateko.

Angelica Moreno

Baratze ekologikoen inguruan aurreko gobernu taldeak ez du ezer egin. Ez dago proiekturik ezta partidarik ere. Martxan jartzen saiatzen ari gara.



Alkatea

Ordizia Zabalikeko partida burutu gabe zegoen, martxotik.

Kultur eta Kirol batzordeak martxan daude, baita diru-laguntzak ere.

Besteak ere beteko ditugu, poliki poliki.

Legealdi aldaketa egon da eta uda ere, tartean. Beraz, zaila izango da, aurten, aurrekontua abenduan onartzea.

Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



7.- Sasietako udal ordezkariak izendatzea.

Proposamena

Gobernu taldearen proposamena: Angelica Moreno eta Mila Sukia, titular gisa. Ordezkoak, Igor Eguren eta Iñaki Dubreuil.

EH Bildu eta Ordizia Orainen proposamena: Igor Eguren eta Mila Sukia, titular gisa. Ordezkoak, Angelica Moreno eta Iñaki Dubreuil.

Eztabaida

Alkatea

Lojikoena da gobernu taldeko kide bat izatea ordezkari bat eta, bigarrena, hauteskundeetan bigarren alderdi izan den E.H. Bildukoa. Baina Ordizia Orain proposatzen dugu, alderdi horrek ez duelako ordezkartzarik Sasietan.



Igor Eguren

Bat gatoz Ordizia Orain egotearekin. Leporutzen diguzue inposaketa bitartez EAJ ordezkarietatik kanpo uztea, baina EAJ oso ondo ordezkaturia dago Sasietan. Adostasun bat lortu dugu bi talderen artean eta demokrazian hori onartu beharra dago.

Mila Sukia

Informazioa behar bezala jasoko duzue zinegotzi guztiek.

Bozketa

Gobernu taldearen proposamena

Aldekoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascoak – Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 7 (Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Beraz, gobernu taldearen proposamena ez da onartu.

E.H. Bildu eta Ordizia Orainen proposamena

Aldekoak: 7 (Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascoak – Euskal Sozialistak 1)

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



8.- 2016rako Tasa eta Zergak

Proposamena

2016rako zerga eta tasetan aldaketa hauek onartzea:

1.- Irizpide nagusia: zergak eta tasak izoztea.

2.- Mahaiak eta aulkiak: egun, auzoetako tabernetarako ezarrita dagoen %30eko hobaria, %50era igotzea.



3.- Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren (IBI) ezarrita dagoen %50eko errekarua hutsik dauden etxebizitzetarako kentzea.

4.- Hilerriko tarifak

- Hilobititik ateratzeko lana, interesatuak eskatuta egiten bada, 320,87 euro kobratzea. Bestela, ez da ezer kobratuko.
- Kolunbarioetan hobiratzea: 215,24 euro (10 urterako). Kolunbariotik ateratzea ez da kobratuko.
- Errautsen hobiratzea panteoian: 203,00 euro. Tarifa hau aplikatuko da bakarrik panteoia albotik irekitzen den horietakoa baldin bada.

5.-Eraikin zergaren 8.4. artikulua aldaketa, ondoko hau erantsiz: "Eskatutako dokumentazioa Udal bulegoetan lehendik badago, aipamen hau egitea nahikoa izango da dokumentazio hori aurkeztu beharrik ez izateko".

6.- Eraikin zergaren 14. artikuluan 3. paragrafoa erantsi, ondoko hau esateko "Baiezatzeko egindako lanak eta aurkeztutako likidazioa bat datorrela, Udalak eskatuko ditu egindako lan horien fakturak"

7.-Gainbalio gaineko zergaren 4. artikulua aldaketa. Ondoko hau jarri beharko du:

- 1 eta 3 hilenerako atzerapena: likidazioaren %5a.
- 3 eta 6 hilenerako atzerapena: likidazioaren %10a.
- 6 eta 12 hilenerako atzerapena: likidazioaren %15a.

Lehenengo hiru kasu hauetan ez dira atzerapen interesak likidatuko.

12 hilabete baino handiago atzerapena izaten denean %20ko errekarua aplikatuko da eta gainera atzerapen interesak, aitorpena egin behar zen egunetik 12 hilabete berandugo kontatzen hasita eta aitorpena aurkeztu den egunerarteko epealdirako.

8.- Sasieta Mankomunitateak eskatzen digun ekarpenari aurre egiteko, Udalak hiru urtetan egokituko da egoera berri horri. 2016rako egin beharreko ekarpena %51,2 handiagoa da 2015eko baino. Planteatzen da 3 urtetan egitea egokitzapen hori, 2016rako %25an igoera finkatuz eta 2017 eta 2018rako %15a. urte bakoitzean. 2016rako tasa honen tarifa guztiak %25ean igoko dira, ezagunenak modu honetan geratuko direlarik:

Etxebizitza okupatuta: 115 euro.

Etxebizitza hutsik: 92 euro.

Ordiziako E.H. Bilduren zuzenketa

1.- Irizpide nagusiak: zergak eta tasak izoztea.



Ados gaude proposamenarekin,

2.- Mahaiak eta aulkiak: egun, auzoetako tabernetarako ezarrita dagoen %30eko hobaria, %50era igotzea.

iaz, adostasunez, %30eko hobaria ezarri zen. Gaiaren inguruko aldaketarik ezagutzen ez denez, ez dugu beharrezko ikusten hobaria handiagotzea. Dagoen hobaria mantentzea proposatzen dugu.

3.- Ondasun Higiezinaren gaineko zergart (IBI) ezarrita dagoen %50eko errenergua hutsik dauden etxebizitzetarako kentzea.

Errenergua mantentzea proposatzen da, atal honetan lortzen den diru-sarrerara alokariari sozialera bideratzeko.

4.- Hilerriko tarifak: teknikoek egindako azterketaren baitan egin dela suposatuz, zalantzak:

Hilobititik ateratzeko lana, interesatuak eskatuta egiten bada, 320,87 euro kobratzea. Bestela, ez da ezer kobratuko.

Ez daukagu aurreko urteko datua. Iazko tarifa mantentzea proposatzen da, igoerarik gabe.

- Kolunbarioetan hobiratzea: 215,24 euro (10 urterako).
Zerbitzu hori kostatzen dena al da? Oso garestia da.
- Kolunbariotik ateratzea ez da kobratuko.
Ados proposamenarekin.
- Errautsen hobiratzea panteoian: 203,00 euro. Tarifa hau aplikatuko da bakarrik panteoia albotik irekitzen den horietakoa baldin bada.

Albotik eta paretik irekitzearen ezberdintasuna azaldu.

5.- Eraikin zergaren 8.4. artikularen aldaketa, ondoko hau erantsiz: "Eskatutako dokumentazioa Udalen bulegoetan lehendik badago, aipamen hau egitea nahikoa izango da dokumentazio hori aurkeztu beharrik ez izateko".

Ados proposamenarekin.

6.- Eraikin zergaren 14. Artikuluari 3. Paragrafoa erantsi, ondoko hau esateko "Baieztatzeko egindako lanak eta aurkeztutako likidazioa bat datorrela, Udalak eskatuko ditu egindako lan horien fakturak"

Ados, baina, atzerapeneko epeetan egokitzapenak.



7. Gainbalio gaineko zergaren 4. Artikuluaren aldaketa. Ondoko hau jarri beharko du: Epeetan egokitzapenak.

- 2 eta 4 hilen arteko atzerapena: likidazioaren %5°.
- 4 eta 7 hilen arteko atzerapena: likidazioaren %10°.
- 7 eta 12 hilen arteko atzerapena: likidazioaren %15°.

Lehenengo hiru kasu hauetan ez dira atzerapen interesak likidatuko.

12 hilabete baino handiago atzerapena izaten denean %20ko errekarua aplikatuko da eta gainera atzerapen interesak, aitortzea egin behar zen egunetik 12 hilabete berandago kontatzen hasita eta aitortzea aurkeztu den egunerarteko epealdirako.

8.- Sasieta Mankomunitateak eskatzen digun ekarpenari aurre egiteko, Udalak hiru urtetan egokituko da egoera berri horri. 2016rako egin beharreko ekaipena %51,2 handiagoa da 2015eko baino. Planteatzen da 3 urtetan egitea egokitzapen hori, 2016rako %25an igoera finkatuz eta 2017 eta 2018rako %15a. urte bakoitzean. 2016rako tasa honen tarifa guztiak %25eanigoko dira, ezagunenak modu honetan geratuko direlarik:

- Etxebizitza okupatuta: 115 euro.
- Etxebizitza hutsik: 92 euro.

Proposamena herritarrentzat malguagoa izango den igoera progresiboa egitea da. 5 edo 10 urtetan igoera berdina aplikatzea. Bost urtetara %10 edota hamar urtetara %5.

Eztabaida

Kontuhartzailea

(Proposamena azaldu du).

Izaro Intsausti

(Zuzenketak azaldu ditu).

Proposamena azken orduan egin duzue. Gai honek lanketa serio bat eskatzen du udal gobernuaren aldetik.

Alkatea

Helburua zen denon artean lantzea eta adosten saiatzea. Dena den, aldaketa gutxi daude, kontinuitateak direlako.



Idazkaria

Ordiziako E.H. Bilduren pasarte gehienak dira beraien aldeko edo aurkako jarreraren azalpena. Zuzenketatzat har ditzakegun bakarrak dira 7. eta 8. atalak.

Mila Sukia

Mahaiak eta aulkiak ipintzeagatik %50eko hobaria izateari buruz kontra bozkatuko dugu, pasa den urtean %30eko hobaria onartuta ez baitu balorazio bat egiteko denborarik eman.

Alkatea

Atalez-atal bozkatuko dugu.

Bozketa

1. puntua.

Ez da bozkatu.

2. puntua.

Aldekoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 7 (Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Beraz, proposamena ez da onartu.

3. puntua.

Aldekoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 7 (Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Beraz, proposamena ez da onartu.

4. 5. eta 6. puntuak (batera bozkatu dira).

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia-Orain 2, Socialistas Vascos–Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 0



Beraz, Alkate jaunak proposamenak onartutzat jo ditu.

7. puntua.

Gobernu taldearen proposamena

Erretiratua izan da. Gobernu taldeak bat egin baitu Ordiziako EH Bilduren proposamenarekin.

Ordiziako EH Bilduren zuzenketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia-Orain2, Socialistas Vascos–Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 0

Beraz, Alkate jaunak zuzenketa onartutzat jo du.

8. puntua.

Erretiratua izan da.

Onartutako akordioa honela idatzia geratzen da:

2016rako Tasa eta Zergak

2016rako zerga eta tasetan aldaketa hauek onartzea:

1.- Hilerriko tarifak

- Hilobitiek ateratzeko lana, interesatuak eskatuta egiten bada, 320,87 euro kobratzea. Bestela, ez da ezer kobratuko.
- Kolunbarioetan hobiratzea: 215,24 euro (10 urterako). Kolunbariotik ateratzea ez da kobratuko.
- Errautsen hobiratzea panteoian: 203,00 euro. Tarifa hau aplikatuko da bakarrik panteoia albotik irekitzen den horietakoa baldin bada.

2.- Eraikin zergaren 8.4. artikularen aldaketa, ondoko hau erantsiz: "Eskatutako dokumentazioa Udal bulegoetan lehendik badago, aipamen hau egitea nahikoa izango da dokumentazio hori aurkeztu beharrik ez izateko".

3.- Eraikin zergaren 14. artikuluari 3. paragrafoa erantsi, ondoko hau esateko "Baieztatzeko egindako lanak eta aurkeztutako likidazioa bat datorrela, Udalak eskatuko ditu egindako lan horien fakturak"

4.- Gainbalio gaineko zergaren 4. Artikuluaren aldaketa. Ondoko hau jarri beharko du: Epeetan egokitzapenak.



- 2 eta 4 hilen arteko atzerapena: likidazioaren %5°.
- 4 eta 7 hilen arteko atzerapena: likidazioaren %10°.
- 7 eta 12 hilen arteko atzerapena: likidazioaren %15°.

Lehenengo hiru kasu hauetan ez dira atzerapen interesak likidatuko.

12 hilabete baino handiago atzerapena izaten denean %20ko erretegia aplikatuko da eta gainera atzerapen interesak, aitorpena egin behar zen egunetik 12 hilabete berandugo kontatzen hasita eta aitorpena aurkeztu den egunerarte epealdirako.



9.- Auto-taxien herri barruko 2016.urteko tarifak onartzea,

Proposamena

AGITAX, Gipuzkoako Taxisten Elkarteko presidente Emilio Fernandez Fidalgo jaunak aurkeztutako idatziaren berri eman da. Idatzi horretan, auto-taxien herri barruko 2016ko tarifak berrikustea eskatzen du, ondoren zehazten den eran:

2016ko HERRI BARRUKO TARIFAK			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,4588	1,0828	20,6819
TARIFA 2**	3,4588	1,7269	32,5052

* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

AGITAXek tarifak justifikatuz prestatu duen txostena ekonomikoa ikurik

Herri barruko gaurko dauden tarifak, hauek dira:

2015eko HERRI BARRUKO TARIFAK			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO	ITXARON ORDUA



		KILOMETROAK	
TARIFA 1*	3,4588	1,0828	20,6819
TARIFA 2**	3,4588	1,7269	32,5052

* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

Gauzak hala, Plenorako Gaien Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:

AKORDIO PROIEKTUA.

- 1.- Onartzea 2016ko auto-taxien tarifa aldatzea, esposizio-atalean esandakoaren arabera.
- 2.- Erabaki hau Goiekiri jakinaraztea.

Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak 1)
 Abstentzioak: 0
 Aurkakoak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



10.- Galde-erreguak

Igor Eguren

Plenoa bideoan grabatu dugu. Udalari ere igorriko diogu kopia. Udala noiz hasiko da bileran zuzenean ematen?

Alkatea

Momentuz, audio grabazioak zuzenean webgunean jarriko ditugu. Bideoan grabatu ahal izateko, pertsona bat ari da prestatzen. Arazo tekniko batzuk ere konpondu behar ditugu, baina asmoa da bideo grabazioak ere webgunean jartzea.



.....

Igor Eguren

Pozgarria da aldibereko itzulpena izan dugula bilera honetan.

Hizkuntza irizpideak nola landuko eta gauzatuko dira nahi dugu jakin?

Alkatea

Lehen aldiz egin dugu itzulpena eta ondo irten delakoan nago.

Zinegotzia ari da Teknikariek hizkuntza irizpideen gaia jorratzen.

.....

Igor Eguren

OTA zaintzailearen lanpostuaren lehiaketa publikoa zein fasetan dago?

Alkatea

Datorren astean hitz egingo dugu gai honetaz.

.....

Igor Eguren

Administrazioan pertsonal aldaketa bat egon da. Horrek postuen balorazio berri bat eskatzen du? Postuen balorazio batzordea martxan jarriko da?

Alkatea

Laster jarriko da martxan batzorde hori. Irabazi ere gonbidatuko dugu parte-hartzera.

.....

Igor Eguren

Udal taldeentzat zein lokal egokituko dira?



Alkatea

Ez dugu gaia aztertzeko denborarik izan. Hitz egingo dugu.

.....

Izaro Itsausti

Lokalen beharrean daude herriko zenbait talde (katekesikoak eta abar). Hileta zibiletarako ere. Gu horren lanketan ari ginen. Helduko diozue gaiari?

Alkatea

Definitzen hasi gara guzti hori, eta taldeekin biltzen.

.....

Adur Ezenarro

Bertan behera gelditu diren bi proiektu (Herri Antzokia eta Oiangu) berrartzea eskatuko nuke, kultur taldeekin bat.

Alkate

Jaurlaritzarekin birritan hitz egin dugu Herri Antzokiaz. Proiektua berrartzeko ahalik eta diru gehien lortu nahi dugu.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

